

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure lokalak arrakasta izan dezan funtsezko baliabideak ere hartu behar ditugu kontuan, hau da, enpresa bat ahalbidetzeko bere balio proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzean datza. Hortaz, 3 ataletan banatzen da; baliabide fisikoak, baliabide intelektuala eta giza baliabideak, eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, gauza ezberdinak beharko ditugu gure ideia hasteko, lokala, mahaiak, aulkiak, telefonoa... material hauek behar-beharrezkoak dira gauzak aurrera eramateko. Horretaz gain, teknologia garatua erabili nahi dugu hortaz hori ere beharko dugu, ordenagailu batzuk eta pantailak pelikulak ikusteko. Baliabide intelektuala eta giza baliabideak ere garrantzitsuak dira, taldekideak ona garen gauzetan laguntzeko prest gaude, esate baterako, teknologia ulermenean, kostuak, salmentak antolatzea... Azkenik, finantza baliabidearen inguruan pentsatzen hasi garenean denak prest egon gara gure aurrezkien bidez finantzatzea hasiera batean eta gero irabazitako diruaren kopuruarekin egingo dugu.